



ORERETA IKASTOLA SENTITU, PENTSATU ETA EKIN !

batzar berezia, 2022ko abendua

www.oreretaikastola.eus



SENTITU

ZER DA IKASTOLA ZURETZAT?

www.oreretaikastola.eus





www.oreretaikastola.eus



SENTITU

IKASTOLEN ERABAKI ESTRATEGIKOAK: MUGARRI HISTORIKOAK

www.oreretaikastola.eus



IKASTOLEN SOZIALIZAZIOA

- **Etxe eskoletatik** (Elbira Zipitria): talde txikiak eta euskaldunak, ikasleak aukeratutakoak, 9 urte arte, maila sozioekonomiko ona, metodo pedagogiko oso aurreratuak.
- **Ikastolak zabaltzera**: Gizarte osora zabalduta (familia erdaldunei ere bai, eskola ordutegia, aurreko metodo pedagogikoak mantendu, eskola publikoari eta erlijiosoari alternatiba bezala).
- Testuinguru horretan, ekimen herritarraz, **Orereta Ikastola** sortu zen 1963. urtean.

EIKE LEGEA (80. HAMARKADA)

Legearen muina: Sare publiko barruan bi eskola mota, Ikastolak eta transferitutako sarea (Madriletik etorritakoak).

Ikastolen jarrera (eztabaida oso handia): **Ezin zen onartu sare publiko barruan bi ikastetxe mota**, denak berdinak izan behar zirela (bestela diskriminatzailea izango litzateke), **sare publikoa errotik aldatu behar zela** (euskaldundu, beste gestio mota...)

10/88 LEGEA (BATERATZE-KONFLUENTZIA LEGEA) ETA 1993ko LEGEA (EUSKAL ESKOLA PUBLIKOARENA)

1988ko Legea: Eskola Publiko berri bat sortzea, sare bakarrekoa eta ez garaiko publikako edo ikastoletako ezaugarriekin, eta hori Lege batean islatuko zela (1993ko Legea izan zena).

1993ko Legea: sare publikoan (hau inolako aldaketarik gabe) ikastolak integratzeko aukera ematen zuen.

Azkenean ikastolen %65ak mantentzea erabaki zuten eta besteek “eskola publiko” izateko aukera egin zuten, herrigintza utzi eta administrazioaren titularitatera pasatuz.

SENTITU

ORERETA IKASTOLA

www.oreretaikastola.eus



Hezkuntza eredu propioa

- **Unibertsala.** Herritar orori hezkuntza eskubidea bermatu nahi diona.
- **Euskara eta euskal kultura ardatz dituena.** Benetako murgiltze eredua gauzatzen duena.
- **Euskal Curriculumetik eraikia.** Oso-osorik, bertatik bertara eraikitako curriculumean oinarrituz.
- **Euskal Herria bere osotasunean lantzen duena.** Herriko errealitatea kontuan izanik osotasun batetik abiatuko dena errealitate guztien aniztasunari zentzu komuna emango diona.
- **Ikas-material propioak** sortzen dituena eta **etengabeko hobekuntzan** diharduen langile talde egonkorra duena.

Hezkuntzaren antolaketaz

- **Gobernantza demokratikotik antolatua.** Hezkuntza komunitateko kide diren guztien erantzukizun partekatutik bideratua. Ikasle, guraso nahiz langileen hezkuntza prozesuari dagozkion erabaki komunetan eta erantzukizunen banaketan oinarritua
- **Erabakiak hartzeko autonomia duena.** Geure hezkuntza proiektua eraginkortasunez kudeatzeko autonomia dugu; eta, autonomia izanagatik, Euskal Herriko ikastolen sareko kide gara: **elkarkidetza eta elkar-zaintza**
- **Herritik sortua.** Herriaren izaera parte-hartzaile eta kolektiboan oinarritua, publikotasun eredu berria eraiki nahi duena, titulartasunari baino, publiko-herritar harremanari kasu egingo diona. Irabazi asmorik gabeko herri proiektua gara, gizarte ekonomian kokatua, hezkuntzaren arloan ongizate-estatuaren oinarritzko helburuekin bat egiten duena, sistema publikoaren partetzat dugu geure burua.

PENTSATU

EGUNGO EGOERA

www.oreretaikastola.eus



**Egungo hezkuntza sistema agortuta dago, ez
dio egungo jendartearen beharrei erantzuten**

**Hezkuntza lege berri baten beharra
dugu**

HEZKUNTZA LEGE BERRIRANTZ...

Endekalogoia eta Bihar prozesua: 2021-22 ikasturtea

Hezkuntza Akordioa: 2022ko apirila

Hezkuntza Legearen zirriborroa: 2022ko irailean

Hezkuntza Lege proposamena legebiltzarrera: 2023ko lehenengo hiruhilekoa.

Hezkuntza Legearen onarpena: 2023ko udazkena
(aurreikuspena)

HEZKUNTZA LEGEAREN ZIRRIBORROAK JASOTZEN DUENA

Begi onez ikusten ditugu:

- Ikasleek eskuratu beharreko **hizkuntza-komunikaziorako gaitasun maila(k)** zehaztea.
- **Euskal Hezkuntza Zerbitzu Publikoaren (EHZP)** sorrera, definizioa eta parte izateko bete beharreko baldintza eta konpromisoak jasota egotea.
- **Segregazioa** ekiditeko neurri eta ikuspegia.

HEZKUNTZA LEGEAREN ZIRRIBORROAK JASOTZEN DUENA

Kezka eta ardura sortzen dizkigu:

- Ez du bermatzen **doakotasuna** eta **planifikazio** orekatua.
- Egungo **hizkuntz ereduak** mantentzen dira (murgiltze ereduaren kalte).
- **Euskal Curriculuma** eta **euskal kulturak** ez dute bere isla testuetan.
- **Laikotasuna** ez du bermatzen ikastetxe guztietan.
- Ez du aukerarik ematen **izaera publiko ezberdin eta berriak** bideratzeko.
- **Euskal Herriko errealitateari** ez dio irtenbide duinik ematen.

ONDORIOZ, ZAILA DUGU IKASTOLOK PROPOSAMEN HAU BULTZATZEA

BITARTEAN...



Ikastolak "segregazio tresna izugarri"

"jatorriaren eta gizarte-mailaren araberako berdintasun eza erreproduzitzeko instrumentu"

"sistema publikoa irensteko erakunde"

"...una educación privada, elitista y racista."

EKIN

KOMUNITATE OSOA LANKIDETZAN

www.oreretaikastola.eus



ELKARREKIN EGIN

Hezkuntza legea aukera bat da, baina nola baliatu behar dugu aukera hau?

Zer egin dezakegu Orereta Ikastolako komunitate gisa?

Eta nik, zer ekarpen egin diezaioket komunitateari?

HURRENGO URRATSAK

- Endekalogoan, Hezkuntza Akordioan eta gure Hezkuntza Proiektuan oinarritutako **diskurtsoa eraikitzea**.
- Gure **komunitatea ahalduntzeko**, ikastolaren iritzi eta posizioaren sozializazioa.
- Herriko **eragile politiko, sindikal eta sozialekin biltzea** Ikastolaren iritzi eta posizioak helarazteko.

ESKERRIK ASKO ETORTZEAGATIK!

www.oreretaikastola.eus

